

## 2023AN ZINEMA ETA LITERATURA ARLOKO SORTZAILEAK ETA ERAGILEAK NAZIOARTEKOTZEKO PROPOSAMENAK AURKEZTEKO DEIALDIA

Etxepare Euskal Institutuak bere xedeen artean du euskal sortzaile eta eragileen mugikortasuna sustatzea. Xede horretan aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa da euskal sortzaileak nazioartera joatea. Hori dela eta, 2023an zinema- eta literatura-arloko sortzaile eta eragileak nazioartera joateko bidaia-poltsak emango ditu Etxepare Euskal Institutuak, ondorengo oinarrietan zehaztutakoaren arabera:

### OINARRIAK

#### 1. Xedea

Deialdi honen xedea da 2023an zinema- eta literatura-arloko sortzaile eta eragileak euskararen eremu geografikotik kanpo joateko proposamenak aurkeztea, ondorengo berariazko baldintzen arabera:

Zinema: zinema alorreko eragileek (zuzendari, aktore, ekoizle, gidoigile) nazioarteko zinemaldietan parte hartzea, horietan beren film luzeren bat aurkeztu edo ordezkatzeko gonbidatuak izan direnean.

Zinemaldi horiek nazioartekotzat jotzeko ezinbestekoa izango da gutxienez bost herrialdetako lanak programatzea eta webgunea ingelesez izatea.

Salbuespen gisa, film laburrak onartuko dira zinemaldia zerrenda hauetakoa denean: [dokumentalak](#) eta [bestelakoak](#).

Literatura: literatura sektoreko eragileek (idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editore) literatura-alorreko nazioarteko ekitaldietan parte hartzea, horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, literatura-sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkari gisa doazenean.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Ikasketa-bidaiak, ibilaldiak, txangoak, trukeak, aisialdia edo antzekoekin lotura dutenak.
- Hezkuntza arautuarekin zerikusia duten jarduerak eta edozein eratako ikastaroak.
- Biltzar, jardunaldi, hitzaldi, mintegi eta antzekoetan parte hartzea, horietan Etxepare Euskal Institutuak presentzia badu irakurletzen bidez.
- Gastronomia edo kirolarekin zerikusia duten topaketa, jardunaldi, erakustaldi eta antzekoak.
- Nagusiki edo osoki euskal etxeetako kideak hartzaile dituzten jarduerak.



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA

## 2. Proposamenak aurkeztea

Errolda edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten zinema- eta literatura-arloko sortzaile eta eragileek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak.

Zabaldu nahi den obraren edo lanaren komunikazio-hizkuntza euskara denean, honakoek ere aurkeztu ahal izango dute proposamena:

- Errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek. Euskararen eremu geografikotzat hau hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa.
- Nazioarteko zinemaldi eta literatura-alorreko ekitaldien antolatzaileek.

Eskabidearen adierazpen erantzulean adieraziko da hori.

## 3. Baliabide ekonomikoak

EtXepare Euskal Institutuak gehienez ere 30.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara.

## 4. Onartuko diren gastuak

Dagokion ekitaldian parte hartzekoak: joan-etorria, ostatua eta dietak.

## 5. Onartuko diren zenbatekoak

a) Ostatu eta dietetarako gehieneko gastuak, pertsonako eta eguneko: Espainian, hirurogeita hamar (70) euro ostaturako eta berrogei (40) euro dietetarako. Espainiatik kanpo, ehun eta hoge (120) euro ostaturako eta hirurogei (60) euro dietetarako.

b) Soilik ostatu-gau baten gastua eta bi egunetako dietak onartuko dira ekitaldiko. Bi emanaldi edo gehiago izanez gero, bi gauren gastua eta hiru eguneko dietak onartu ahal izango dira gehienez.

c) Ekitaldiko pertsona bakar baten gastuak onartuko dira. Ekitaldi bererako proposamen bat baino gehiago bada, lehen erregistratu dena hartuko da kontuan.

d) 1.200 kilometro arteko joan-etorrirako autoa erabili ahal izango da. Hala eginez gero, 0,25 euro ordainduko da km-ko, gehi autopista. Kilometro kopurua kalkulatzeko, pertsona fisiko edo juridikoaren egoitza soziala edo errolda hartuko da abiapuntutzat. Aipatutako kilometro horiek baino urrunagoko ekitaldietan ez da kilometrajirik onartuko.

e) Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoren bat erabiliz gero, txartel arrunta onartuko da.

## 6. Onartuko diren gehieneko zenbatekoak eta mugak

Honakoak izango dira mugak, distantzien arabera:

- 5.000 km-tik harago egitekoak diren ekitaldiak: mila ehun eta berrogeita hamar (1.150) euro.
- 1.201 km-tik 5.000 km-ra bitartean egitekoak diren ekitaldiak: bederatziehun (900) euro.
- Gehienez ere 1.200 km-ra egitekoak diren ekitaldiak: bostehun (500) euro.

Pertsona fisiko edo juridiko batek nahi beste proposamen aurkez ditzake, baina jasotako zenbateko guztien batura ez da inolaz ere izango bi mila (2.000) euro baino handiagoa. Era berean, proiektu berarekin lotuta pertsona batek baino gehiagok eginiko proposamenek ere ezin izango dute zenbateko hori gainditu. Horren inguruko desadostasunen bat bada, erregistroaren dataren arabera ebatziko dira.

## 7. Proposamenak onartzeko prozedura

Proposamenak iritsi ahala onartuko dira, deialdiaren baldintzak betez gero, aurrekontuko zuzkidura agortu arte. Hurrenkera zehazteko, proposamenaren erregistro eguna eta ordua hartuko dira kontuan.

Deialdiaren aurrekontua agortu egiten bada, EEIko zuzendariak amaitutzat joko du proposamenak aurkezteko epea. Horren berri Etxepare Euskal Institutuaren webgunean emango da.

Funtsa agortu eta epea amaitutzat eman bitartean proposamenen bat epe barruan jasotzen bada, erreserba egoeran geldituko da, aurrez onartutako proposamenak bertan behera gelditzen diren kasuetarako edo soberakinen bat dagoen kasuetarako.

## 8. Proposamenen bateragarritasuna

Deialdi honetara aurkeztutako proposamenak beste deialdi batzuetara ere aurkeztu ahal izango dira, baina ez da gainfinantziatorik onartuko. Gainfinantzaketarik badago, proposamenean jasotako zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

## 9. Proposamenak egin ahal izateko bete beharreko baldintzak

- a) Inolako zorrik ez izatea administrazio publikoekin.
- b) Proposamen berari lotutako laguntzen berri ematea.
- c) Ez izatea administrazio publikoekin jarduteko debekurik.

## 10. Proposamenak aurkezteko epea eta modua

a) Proposamenak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 14an zabalduko da eta abenduaren 31 arte edo diru-zuzkidura amaitu arte egongo da irekita. Epe horren amaiera Etxepare Euskal Institutuaren webgunean jakinaraziko da.

b) Proposamena posta elektronikoz bidali beharko da [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus) helbidera, honako dokumentazioarekin batera.

1. Proposamen-orria (erantzukizunpeko adierazpena barne dela) behar bezala bete eta elektronikoki sinatuta.

2. Antolatzailearen gonbidapena. Dagokion ekitaldiaren arduradunaren gonbidapen formala. Bertan zehaztu beharko dira parte hartzearen nondik norakoak (gonbidatua, aurkezpenaren data, iraupena, zeregina...) eta antolatzailearen kontaktu datuak.

3. Bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria

c) Proposamenak aurkezteak esan nahiko du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

d) Etxepare Euskal Institutuak posta elektronikoz iritsiko den mezuari erantzungo dio, eta bertan adieraziko dio erregistro zenbakia. Mezu hori jaso arte ezingo da proposamena aurkeztutzat eman.

e) Ekitaldiko proposamen bana aurkeztuko da. Proposamen bat baino gehiago aurkeztuz gero, nahikoa izango da bankuko datuak behin aurkeztea.

f) 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharreko ekitaldiak proposatu ahal izango dira.

## 11. Proposamenean egindako akatsak zuzentzea

Etxepare Euskal Institutuak ikusten badu proposamena onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango da akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, proposamenean atzera egin duela ulertuko da.

## 12. Onartutako proposamenaren zenbatekoa jakinaraztea eta onartzea

Proposamena behar bezala osatuta, Etxepare Euskal Institutuak kontratu zirriborroa bidaliko dio proposamena aurkeztu duenari, zenbateko eta guzti, posta elektronikoki bidez eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

Mezu elektronikoko hori jaso eta 10 egun balioduneko epea izango du proposamena egin duenak kontratu zirriborroa onartu duela baieztatzeko Institutuaren mezuari erantzunez.

### 13. Kontratu sinatzailearen betebeharrak

- a) Jasotako zenbatekoa adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea.
- b) Proposatutako ekintzaren gauzatzea eta gastua justifikatzea.
- c) Proposatutako proiektuan izandako edozein aldaketaren berri ematea EEIri, EEIk onarpena berrets dezan edo uka dezan.
- d) Proposatutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabiltzeko baimena ematea EEIri.
- e) Kontratua sinatzen denetik aurrera EEIren babesaren berri logotipo bidez ematea, katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan, horrelakorik berariaz sortuz gero.

### 14. Kontratuaren justifikazioa eta ordainketa

- a) Kontratuko konpromisoa ordainketa bakar baten bidez ordainduko da, ekitaldia amaitu eta gastuak behar bezala justifikatu ondoren.
- b) Justifikazioak posta elektronikoko bidez aurkeztuko dira [etxepare@etxepare.eus](mailto:etxepare@etxepare.eus) helbidean.
- c) Hilabeteko epea izango dute sinatzaileek kontratua justifikatzeko, ekitaldia amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.
- d) Justifikazioa egiteko, agiri hauek aurkeztuko dira:
  - 1. Justifikaziorako fitxa behar bezala beteta eta elektronikoki sinatuta.
  - 2. Eginiko ekitaldia justifikatzeko agiria: kontratua, argazkia, antolakuntzaren ziurtagiria edo antzeko agiria.
  - 3. Bidaiak eta ostatua fakturen bidez egiaztatuko dira. EEIk jatorrizkoak eskatzeko eskubidea izango du. Kilometroak eta dietak justifikatzeko aski izango da justifikaziorako fitxa betetzea.
  - 4. Proposatutako ekitaldia dela eta sortutako materialen ale bana, euskarri fisiko nahiz magnetikoan, erabilitako hizkuntza guztietan, halakorik sortu bada.
- e) Ezinbesteko kasu baten ondorioz, aurreikusitako ekitaldia bertan behera geratzen bada eta gonbidatuak dagoeneko bidaia egina badu, kontratuko zenbatekoaren erdia ordainduko zaio, betiere antolakuntzaren agiriaren bidez egiaztatzen bada zeintzuk izan diren ekitaldia bertan behera uzteko arrazoiak.

f) Kontratuan jasotako zenbatekoa baino gutxiago justifikatuz gero, justifikatutako zenbatekoa soilik ordainduko da.

#### **15. Ez-betetzeak**

Ez-betetzetat joko dira deialdi honetan edo bestelako xedapen orokorretan ezarritako betebeharrak ez betetzea eta kontratu bidez jasotako zenbateko guztia edo zati bat deialdi honetan aurreikusitako ekitaldia ez den besteren batean erabiltzea.

Halakorik gertatu dela egiaztatzen bada, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta, kontratuaren sinatzaileak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako zenbatekoak.

#### **16. Datuen babesa**

Deialdi honen garapenean jaso eta tratatuko diren datu pertsonalak nahitaez egin beharko dira 2016/679 Araudian (EB) jasotakoaren arabera. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionean.

#### **17. Zalantzak eta gorabeherak**

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna deialdi honen inguruan sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak kudeatu eta argitzeko.